

2.017ko XANISTEBANETAKO Kartel Lehiaketa

Oiartzungo Udal Kultura Batzordeak XANISTEBAN JAIK iragartzeko kartel onena hautatu asmoz aurtengo KARTEL LEHIAKETA antolatu du, hauek direlarik bere

OINARRIAK

- 1 Kartelaren neurria 70 x 50 cm.koa izango da.
- 2 Erabili daitekeen teknika librea izango da (argazkia, diapositiba, pintura, marrazkia, collage-a, e.a.) kartelan derrigorrez "XANISTEBANAK 2017" agertu behar duelarik.
- 3 Lehiaketan edonork parte har dezake eta bakoitzak original bat baino gehiago aurkez dezake.
- 4 Originalak kartelen formato konbentzionalei egokiturikoak izanen dira, "karton pluma" edo kartulina euskarrian entregatuko dira eta inprimatzeko erraza antzekoak izango dira.
- 5 a) Lehiaketa honen irabazleak **SEIEHUN (600) EURO**tako saria jasoko du.
b) Lehiaketako lehen oiartzuarrak, **HIRUREHUN (300) EURO**tako akzesita jasoko du.
*Lehen sariduna oiartzuarra balitz, sari hau bigarren oiartzuarrari dagokio.
c) Bestalde, Udalak **BERROGEI TA HAMAR (50) EURO**tako laguntza emango die sariturik gertatzen ez diren beste bi original onenei.
d) Oiartzungo gaztetxoek lanak sustatzeko, 100TZE SORMEN ESPAZIOko urtebeteko doanezko matrikula emango da saritzat. Sari hau ezingo dute bereganatu inolaz ere a) eta b) sarien irabazleek.

- 6 Sexuen arteko parekidetasuna bermatzeko, egileei dei egiten zaie genero-berdintasunaren irizpidea txertatzeko beraien lanetan. Epaimahaiak ere kontuan hartuko du genero-berdintasunaren irizpidearen zainketa aurkezturiko lanetan.
- 7 Lanak Oiartzungo Udaletxean (Done Eztebe Plaza, z.g.) aurkeztu behar dira **MAIATZAREN 31ko eguerdiko 13.00a** baino lehen egilearen izenik gabe lanean bertan, eta kartazal itxi batez lagundurik. Kartazalaren barrenean egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta langabetua bada, frogagiria idatziz aurkeztu behar dira.
- 8 Epaimahaia Oiartzungo Jai Batzordeak osatuko du eta bere erabakia uka ezinekoa izango da.
- 9 Oiartzungo Udalak beretzat gordetzen du lehiaketara aurkeztu diren kartelekin erakusketa bat antolatzeko eskubidea.
- 10 Oiartzungo Udalak ez du izango zerikusirik kartelen balizko galerekin edota kartelek, markoek edo bere babesleek jasan ditzaketan kalteekin.
- 11 Sariren bat eskuratzen duten kartelen jabea Udala izango da eta bere iragarpen, argitaratze, zabalkunde eta abarren eskubide guztiak gordetzen ditu beretzat.
- 12 Saria jaso duten edo ez duten kartel guztiak **IRAILEAN** jaso ahal izango dira. Epe honetan bakarrik gordeko ditu lanak Udalak, eta egileei, epe horren barruan ez badituzte jasotzen, inolako erreklamazio edo indemnizazio eskubiderik ez zaie onartuko.
- 13 Lehiaketa honetan parte hartzeak **OINARRI** hauek onartzea dakar.

OIARTZUN, 2017ko martxoaren 31a.

anima zaitetz!!!

